

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BILBOKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2013

Joan zen otsailaren 25ean Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen Bilboko Udalaren, bere toki erakunde autonomoen, enpresa-erakunde publikoen eta sozietate publikoen ekonomia-finantzazko kudeaketaren fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa. Hauek dira bere toki erakunde autonomoak: Bilbao Musika, Bilbao Kirolak eta Bilboko Udal Etxebizitzak; beste hauek enpresa-erakunde publikoak: Bilbao Ekintza eta Bilbao Zerbitzuak; eta azken hauek sozietate publikoak: La Alhóndiga Aisia eta Kultura gunea, SA, Bilboko Udalaren Informatika Zentroa, SA (CIMUBISA), Berregokirapenerako Hirigintza Elkarte, SA (SURBISA), Arriaga Antzokia Kultur Jardueren Gunea, SA, Bilbao Kirolak, SA, Artxandako Funikularra, SA eta Bilboko Handizkakoen Merkatu Nagusia-Mercabilbao, SA.

Udala

Txostenak ondorioztatu du Udalak zuzentasunez bete duela 2013ko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautu duen lege arautegia; salbuespen bakarra administrazioko kontratu bati dagozkion prestazioak barne hartzen dituen hitzarmen baten sinadura izan da.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk aldeko iritzia eman du; alabaina, Udalaren Diruzaintza Geldikina 5,8 milioi euroan gehitzea eragiten duten hainbat doiketa azaleratu ditu. Horrezaz gain, ondasun eta eskubideen ondasun-zerrenda gaurkotu gabe dago.

Erakunde autonomoak, enpresa-erakunde publikoak eta sozietate publikoak

Erakunde autonomo, enpresa-erakunde publiko eta sozietate publikoei dagokienez, HKEEk legea betetzeari eta Urteko Kontuei buruz eman duen iritzia aldekoa da, nahiz txostenean bertan hainbat ez-betetze eta salbuespen jaso diren.

Administrazioko kontratazioaren atalean akatsak azaleratu dira 3 kontratutan; bat Udal Etxebizitzak toki erakunde autonomoak esleitutako kontratu batean, non igogailuen mantentze zerbitzua zuzenean esleitu zuen; beste biak La Alhóndiga Aisia eta Kultura gunea, SAk esleitutakoetan, zeinak kontratu bat publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitu zuen, prozedura hau baliatzeko arrazoiak argitu gabe; eta beste

kontratu batean bolumen ekonomikoa desitxuratu zuen. Gainera, Bilbao Ekintzak, La Alhóndiga Aisia eta Kultura gunea, SAK, eta Arriaga Antzokia Kultur Jardueren Gunea, SAK gastua prozedurarik gauzatu gabe esleitu dute (kontratu txikiak).

Langileen atalean akatsak azaleratu dira Bilbao Ekintzan (5 langileren aldi baterako kontratuak finko bihurtzea eta aldi baterako beste kontratu bati eustea, xedea amaitua zegoela), Bilbao Kirolak, SAn eta La Alhóndiga Aisia eta Kultura gunea, SAn (Estatuko Aurrekontuen Legeak ezarritako mugaketei gaina hartuta langileak kontratatzea). Sarrerei dagokienez, Epaitegiak adierazi du bai La Casillako pabiloia erabiltzeagatiko tasa bai handizkako merkatuen zerbitzu publikoa emateagatiko tarifa Udalak onartu behar litzukeela.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEren iritzira, Bilboko Udal Etxebizitzak, TEAREN Diruzaintza Geldikina 5,1 milioi euro handitu beharko litzateke azkenean Udalari ez baitzikio Zorrotzaurren lursailak erosi zenbateko horretan. Gainera, HKEEk ezin egiaztatu izan du Bilboko Udal Etxebizitzak, TEAREN ibilgetuaren zenbatekoa, ez eta La Alhóndiga eraikinaren ordainik gabeko erabilera eskubidearen balorazioa ere, La Alhóndiga Aisia eta Kultura gunea, SAREN egoera balantzeko ibilgetu ukiezinaren zifran barne hartutakoa.

Finantza egoera, aurrekontuaren egonkortasuna eta iraunkortasuna

Egoera finantzarioari dagokionez, Udalak 2013ko ekitaldian aurrezki garbi positiboa erakutsi du, urteko inbertsioak finantzatzeko nahikoa dena; are, Diruzaintza Geldikinaren saldoa gehitzeko bide eman du. Horrek guztiak Udala kaudimen ekonomikoko egoeran jartzen du, ohiko funtzionamendurako behar hainbateko baliabideekin eta zorpetu beharrik izan gabe, etorkizuneko inbertsioei berezko baliabideekin aurre egiteko. Berebat, Txostenak azpimarratu du Udalak ez duela zorpetzerik izan 2011-2013 aldian.

Gainera, txostenak ondorioztatu du Udalak 2013an **aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun eta gastuaren araua bete dituela.**